Lan-eskaintzen erregistroa 2017an

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2017an Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 12.989koa izan da, 2016an baino 904 gehiago. Datu horiek ikusita, eboluzioa positibo dela esan dezakegu, urtez urteko saldoa positiboa baita. Badirudi ekonomia zertxobait suspertzen ari dela, baina hala ere, interesgarriena ez da kontratu kopurua baizik eta kontratuen kalitatea.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2017an 1.912 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 4.928 Gipuzkoan eta 6.149 Bizkaian. Lan-eskaintzen %47a Bizkaiko KAUetan erregistratu dira, %38a Gipuzkoan eta ia %15a Araban.



Aurreko urtearekin alderatuz, lurralde guztiek bilakaera positiboa izan dute. Gipuzkoan hazi dira gehien kontratuak, %11,1, ondoren Araban, non %8,1 hazi dira. Bizkaia izan da hazkunde txikiena izan duen lurraldea, %4,6 hazi dira.

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. Industriako langile kualifikatuen lanbide-profilerako (2.714 eskaintza) eta zerbitzu sektoreko lanbide-profilerako (2.604 eskaintza) erregistratutako lan-eskaintzak eskaintzen %20a baino gehiago suposatu dute bakoitzak. Laguntzarako teknikarien, zientzia teknikarien eta okupazio ez kualifikatuen lanbide-profilek ere pisu nabarmena dute erregistratutako lan-eskaintzetan; 2.019, 1.876 eta 1.658 eskaintza erregistratu dira, hurrenez hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu den profila zuzendariena izan da (75 eskaintza soilik), lehen sektoreko langileen atzetik (107 lan-eskaintza).

Urte arteko saldoari erreparatuz, balore erlatiboetan, operadoreen eskaintzak dira gehien hazi direnak (%24,2ko hazkundea). Eskaintza mota bakar batek egin du behera, lehen sektoreko langileenak, %41,2 murriztu dira. Datu honek agerian uzten du sektore honek bizi duen egoera kaxkarra.

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen %11,3k kontratu mugagabea eskaini dute; %87,5ek, aldi baterakoa, eta, gainontzeko %1,3k, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 1.465 izan dira, 214 gehiago aurreko urtearekin alderatuz, %17,1eko murrizketa. Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten eskaintzak 761 murriztu dira: guztira 11.364 eskaintza izan dira. Kopuru erlatiboetan hazkundea %7,2koa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2017an 160 izan dira, aurreko urtean baino 71 gutxiago.



Lehen aipatu bezala, kopuruak baino kontratuen kalitateak du garrantzia. Nahiz eta aldi baterako kontratuen kopurua neurrigabea izan, urte honetako bilakaerak kontratu mugagabeak erritmo handiagoan hazi direla erakusten du, eta horrek etorkizuna baikortasunez ikustea dakar.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2017an erregistratutako lan-eskaintzen 2 herenek (8.606 eskaintzak) 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen %17,1ek (2.217) esperientzia-denbora luzeagoa eskatzen du, 6 hiletik 12ra artekoa. Eskaintzen %12,6k, 1.638k, urte 1etik 3ra arteko esperientzia eskatzen du. Portzentaje txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenek, hain zuzen; %3,4ko eta %0,7ko pisua dute, hurrenez hurren (436 eta 92 eskaintza guztira).



Urte arteko eboluzioari dagokionez, balore erlatiboetan gehien hazi direnak 6 eta 12 hilabete bitarteko esperientzia-denbora eskatzen dutenak izan dira, %9ko hazkundea (183 eskaintza gehiago). Murriztu diren bakarrak 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenak izan dira, %4,2ko murrizketa. Badirudi txikiagoa dela, orokorrean, enplegu bat lortzeko beharrezko esperientzia-denbora, eta horrek gazteei egiten die mesede, teorian, zailtasun gutxiago dituzte lan bat lortzeko.

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 9 hileko esperientzia eskatu dute 2017an.

Lan-eskaintzen erregistroa 2017an

• LANALDI MOTA

Analisiarekin hasi baino lehenago, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik %19,4 eskaintzak zehazten du datu hori (12.989 eskaintzetatik 2.515). 2.515 eskaintza horietatik, 1.745 (%69,4) lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 770k lanaldi partziala eskaini dute.

Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 76 gehiago izan dira aurreko urtearekin alderatuz, hau da, %4,6 hazi dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak 74 gehiago izan dira; hazkundea %10,7koa izan da.

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Erregistratutako eskaintzen %1,7 izan dira ABLEen bitartez kudeatu direnak, 12.989 eskaintzetatik 219 soilik. Aurreko urtean 198 izan ziren.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen %84,9k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 12.989 eskaintzetatik 1.956k soilik zehaztu dute.

1.956 eskaintza horietatik, 864k LHko prestakuntza maila eskatu dute (%44,2k); gehien eskatu den prestakuntza maila izan da. Horiei jarraituz, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak daude, 622 eskaintza (%31,8). Ondoren, gutxieneko ikasketak eskatzen dituztenak daude 351 eskaintzekin (%17,9). Azkenik, batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude, erregistratutako 119 eskaintzekin, eta %6,1ko pisua dute erregistratzeko orduan adierazle hau zehaztu duten 1.956 eskaintzen artean.

Eboluzioari dagokionez, esan beharra dago 2016an lan-eskaintza gutxiagotan zehaztu zela prestakuntza maila (1.749 eskaintza), eta hauen pisua ere txikiagoa izan zen eskaintza guztien artean (%14,4koa). Urte arteko erlazioari erreparatuz, eskaintza mota guztiak hazi dira, oinarrizko ikasketa maila eskatzen dutenak izan ezik (%7,1 murriztu dira). LHko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak izan dira gehien hazi direnak balore erlatiboetan, %18 hazi dira (132 eskaintza gehiago).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen diren jarduera manufaktura-industria eta merkataritza dira, eskaintzen %17ko, eta %15,7ko pisuarekin, hurrenez hurren (2.211 eta 2.034 lan-eskaintza 12.989 eskaintza guztietatik, hurrenez hurren).

Aurreko urteari erreparatuz gero, lehen sektoreko jarduerak (%42ko murrizketa) eta finantza jardueren (%21eko murrizketa) eskaintzak izan dira gehien murriztu direnak. Eboluzio positiboa izan dutenen artean, eraikuntza (250 eskaintza gehiago) eta manufaktura industria eta merkataritzako (193 eskaintza gehiago, bi kasuetan) eskaintzak izan dira gehien hazi direnak balore absolutuetan. Balore erlatiboetan, kontratu kopuru esanguratsu bat dutenen artean, garraioa eta biltegiratzea (%31,5eko hazkundea) eta eraikuntzako eskaintzak (%30,7ko hazkundea) izan dira eboluzio onena pairatu dutenak.


Eskaintzaren jarduera
Etxeak langile enplegatzaile gisa
Beste zerbitzuak
Artistikoak, jolaserakoak eta entretenimenduzkoak
Osasun jarduerak eta gizarte-zerbitzuak
Hezkuntza
Administrazio publikoa
Jarduera administratiboak
Profesionalak, zientifiko eta teknikoak
Higiezinen arloko jarduerak
Finantza eta aseguru jarduerak
Informazioa eta komunikazioa
Ostalaritza
Garraio eta biltegiratzea
Handizkako eta txikizkako merkataritza; konponketa
Eraikuntza
Ur-horniketa, handakinen kudeaketa
Argindar, gas, lurrun horniketa
Manufaktura industriak
Erauzketa industriak
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza
0,00%
2,00%
4,00%
6,00%
8,00%
10,00%
12,00%
14,00%
16,00%
18,00%